



## OSTATU MAHAIA

2024ko urriaren 2a

### GAI-ZERREDA:

1. Sektorearen aurkezpena eta azterketa.
2. Informazioa hurrengo gaietara buruz:
  - GetxHotel
  - Enpresentzako laguntza-zerbitzua.
  - Hotelen sektorean, karbono-aztarna kalkulatzeko proiektua.
3. Ideia eta proposamen berriak.

### BERTARATUAK: (% 80)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	EZ BERTARATUAK	
			Arrazoi emanda	Arrazoirik eman gabe
Neguri hotela	Javier Angulo		X	
Embarcadero hotela	Xabier Caballero	X		
Los Tamarises hotela	Karmele Abarrategui			X
Igeretxe hotela	Nagore Saiz	X		
Artaza hotela	Joseba Oribe			X
Areeta pentsioa	Gorka Mendia	X		
El Abra pentsioa (orain, Getxo Rooms)				
Basagoiti pentsioa	Mikel Valdés			X
Kai apartamentuak	Jasone Fernández			X
Etsetxu apartamentuak	Iñaki De La Torre	X		
Palacio Arriluce hotela	Ander Elortegi	X		
Getxoko Udala Ekonomia Sustapenaren Arloa	Idoia Belasko	X		
	Mercedes Montalban	X		
	Rubén Justicia	X		



## 1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Rubén Justiciak ongietorria egin die bertaratuei, eta Enpresen Kontsulta Foroa zertan datzan azaldu die. Rubenek esan du enpresen, elkarteen eta sektore publikoaren arteko lankidetzagunea izateaz gain, Kontsulta Foroak balio duela enpresetako arduradunek elkar ezagutzeko eta "Networkin" lan-sarea eratzeko aukera sortzeko, haien artean sinergiak sortzeko eta udalerriko arazoak hobetzeko xedez.

Informazio gehiago: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Enpresen Kontsulta Foroa- Enpresen Kontsulta Foroa.](#)

Bestalde, Mercedes Montalbanek udako denboraldiak izan duen bilakaerari buruz hausnartzeko gonbita luzatu die bertaratutakoei. Oro har, Getxon eta Bizkaian meteorologiak lagundu ez duen arren, uda erdialdean erreserben gorakada nabarmena nabaritu dute eta pozik daude emaitzekin. Eta gaineratu dute Getxon ostatu hartzen duten turistaren profileen aldaketa bat dagoela: uztailean arte bertako turista gehiagok eman dezakete gaua. Hala ere, abuztuan, Euskaditik kanpo datozen atzerritar gehiago etortzen hasi dira.

Bestalde, Idoia Belaskok, Ekonomia Sustapenaren Arloko teknikariak, mahaietara joatea garrantzitsua dela azpimarratu du, ostatuaren arteko kontaktua baliagarria izan baitaiteke sektorearentzat udalerrir barruan iritziak trukatzeko modu gisa, helburu erkideak erdiesteko eta ingurunearen errealitatea aldatzera bideratzeko, jardura ekonomikoa hobeto gauza dadin.

Era berean, Rubén Justiciak argitu du historikoki mahai honetara deitutako bertaratuen parte-hartzea oso txikia izan dela, ordezkariak gabe geratu arte, eta Ekonomia Sustapenaren Arloa mahaiari bultzada handiagoa ematen saiatu dela.

Bestalde, Mercedes Montalbanek adierazi du azken mahaian Ander Elortegi (Palacio Arriluce hotela) eta Gorka Mendia (GetxoRooms ostatua) aukeratu zirela mahaiko ordezkari gisa. Bultzada horri esker, Rubén Justiciak gogorarazi du Gobernu eta Oposizio Taldearekin uztailaren egindako azken kontraste-mahaian erabaki zela *Getxoko hotel nagusien seinaleak hobetzeko proiektu bati ekitea*, Getxora ibilgailuz iristen diren turistak noraezean ibiltzen direlako. Gainera, esan du gaur egun itsas bidaiak seinaleztatzeko proiektu bati ekiten ari zaiola eta, proiektu hori amaitu ondoren, hotelak seinaleztatzeko proiektuari ekingo zaiola datorren urteari begira.

## 2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

### 1.1. Enpresei Laguntzeko Zerbitzua eta Kontratazioarako laguntzak:

Ekonomia Sustapenaren Arloko Idoia Belaskok Getxolanen zerbitzuen aurkezpen laburra egin du: aholkularitza-zerbitzuak, prestakuntza-plana eta udalerriko enpresentzako kontratazioarako laguntzak. Eta gogorarazi nahi die kudeaketaren premiekin zerikusia duen edozein gai suertatzen bazaie, edo biltzeko guneren bat behar badute, jar daitezela harremanetan Getxolanekin.



Ander Elortegi ostatu-mahaiko ordezkariak esan du Getxoko ostatuak udalerriko enpresa digitalizatuenetakoak direla. Idoia Belaskok argitu du Ekonomia Sustapenaren Arloko prestakuntza-eskaintza zabalagoa dela, eta enpresaren kudeaketa-arlo guztiak hartzen dituela.

Informazio gehiago: [Getxo – Ekonomia Sustapena – Ekonomia Sustapena](#)

## KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK

Idoia Belaskok azaldu du urrian zabalduko dela besteren konturako langileak dituzten autonomoak kontratatze laguntzen deialdi berriaren epea, baldin eta langile horiek lanaldi partzialeko edo osoko lan-kontratu mugagabeak egiten badituzte, kontratuok 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean hasitakoak badira eta lantokia eta jarduera ekonomikoa Getxon badute. Informazio guztia hemen:

[Getxo - Ekonomia Sustapena - Dirulaguntzak - Hurrengo dirulaguntzak kontrataziorako 2024](#)

### 1.2. GetxHotel programa

Mercedes Montalban turismo-teknikariak Turismo Sailaren zerbitzuak aurkeztu ditu labur-labur, Turismoko webgunearen bidez. Informazio gehiago: [Getxo Turismo](#) atalak GetxHotel programaren eta bere funtzionamenduaren berri ematen du eta GetxHotel Programaren urteko lehen seihilekoaren emaitzak eskaintzen ditu (Urtarrila – Abuztua):

- ✓ Bezeroei emandako sarrerak: **210**
- ✓ Bezeroek kontsumitutako sarrerak: **164 sarrera, % 78ko eraginkortasuna**
- ✓ Kontsumitutako sarrera-mota: **Bizkaia Zubiko pasabidea** (% 97); guztira 7 jarduera oparitzen dira, baina pasabidea da urte osoan eta egunero erabilgarri dagoen bakarra (errazago kontsumitzen da, irteera handiagoa du).
- ✓ **Urtarrila-abuztua Kontsumo handieneko hilabetea: martxoa ( % 34), ondoren abuztua ( % 24)**
- ✓ Programaren parte-hartzean nabarmendu diren establezimenduak: *Kai apartamentuak ( % 38) eta Petit Palace Tamarises ( % 35)*
- ✓ Programaren turisten jatorri nagusia: **Madril ( % 26), Gaztela eta Leon ( % 15), Aragoi ( % 13)**. Atzerriko turismoak sarreraren % 20 kontsumitu ditu, hainbat jatorritatik (Eslovakia, Italia, Kuba, Belgika, Alemania, AEB...).

Gainera, Mercedes Montalbanek ostatu-sektorerako urteko lehen seihilekoan egindako sustapen-ekintza espezifikoen berri eman du:

- Fam – press, apirila; Lyon Capital aldizkariarentzat; BasqueTourrek sustatua, Volotea Lyon-Bilbao aireko konexio berriaren ondorioz; Nadège Druzkowski kazetaria; Embarcadero hotela. Argitaratutako erreportajea.
- Fam-press, apirila; Frantziako Petit Futé bidaia-gida; Basquetourrek sustatua; Martin Fouquet kazetaria; Etxetxu apartamentuak. Gida datorren urtean argitaratuko da.
- Fam-press. Uztaila; Palacio Arriluce Hotelek sustatua, Bilbao Turismo eta Getxo Turismo erakundeekin lankidetzan. Premium profila/luxua eta gastronomia. 3 kazetari Madrilan, GastroStyle-n, Estrategia de Inversión – Lifestyle sailean eta Cosechando Madriden.



- ✓ Lehen artikulua argitaratu dira: El Palacio de Arriluce es un marco de lujo para la inspiración. (gastrostyle.com) eta Estrategias de Inversión – Lifestyle aldizkarian: Palacio Arriluce Hotel. Lujo, historia, arte y gastronomía | Estrategias de Inversión (estrategiasdeinversion.com).

Mercedes Montalbanek argitu du online artikulua gehiago egongo direla, eta azaroan *Cosechando Madrid* paperezko aldizkaria argitaratuko dela.

- Sare sozialak (FB: +15mil jarraitzaile; IG: +10mil jarraitzaile): Getxo eta Getxohotelean ostatu hartzeko copy-ak, Aste Santuari eta udari begira (martxoa , apirila , uztaila )
- Flyerra maiatzetik dago eskuragarri webgunen – non lo egin; ostatuen zerrenda: [https://www.getxo.eus/DocsPublic/turismo/Alojamientos\\_Getxo.pdf](https://www.getxo.eus/DocsPublic/turismo/Alojamientos_Getxo.pdf) ; 42 deskarga
- Turismo-publizitateko eta -sustapeneko kanpainaren barruan, bannerrak eta ostatu-iragarki espezifikoak: webgune turistikoetan eta beste komunikabide batzuetan, google ads plataformetan. Mercedes Montalbanek kanpainaren barruan egindako publizitate-piezen adibide batzuk azaldu ditu

Informazio gehiago: [Getxo – GETXO EZAGUTU – GetxHotel sustapena](#)

### 1.3. Proiektu pilotua. Karbono-aztarnaren kalkulua Getxoko ostatuetan:

Rubén Justiciak azaldu du Getxoko Udalak proiektu berritzaile bat abiarazi duela udalerriko ostatu turistikoek (hotelak, pentsioak eta apartamentu turistikoak) karbono-isuriei dagokienez ingurumenean duten eragina neurtzeko. Halaber, Rubén Justiciak azaldu du programa pilotu bat dela, hasiera batean 5 bizitokik sortutako karbono-aztarna kalkulatu nahi duena. Ekimen hori IHOBE Ingurumen Jarduketarako Euskal Sozietate Publikoaren kalkulagailuan oinarrituko da. Ekimenari esker, ingurumen-inpaktua murrizteko irtenbide pertsonalizatuak eskaini nahi dira, turismo jasagarriagoa eta ingurunearekin konprometituagoa sustatuz.

Informazio gehiago: [Turismo-ostatueterako karbono-aztarna kalkulatzeko programa](#)

### 3. Ideia eta proposamen berriak.

Gorka Mendiak, ostatu-mahaiko ordezkariak, esan du Areetako erdigunean dagoenez, bezeroek zailtasunak dituztela aparkatzeko eta ekipajea deskargatzeko, eta proposatu du hotel-establezimenduetako bezeroentzako TAO bonu bat sortzea edo turistentzako karga- eta deskarga-geltoki bat ezartzea ostatuko atetik gertu.

Bestalde, Iñaki de la Torre, Etxetxu apartamentuen jabea, ados dago horrekin, eta TAO txartel bat egitea proposatu du, turismo-ostatueterako ostatu-hartzaileek ordainpeko eremuan doan aparka dezaten. Mercedes Montalban Turismoa teknikiari adierazi du ideia hori baztertu egin zela udal-ordenantzak ez duelako aukera hori aurreikusten. Hala ere, Mercedes Montalbanek esan du irtenbideren bat bilatu behar dela, hala nola zamalanetarako plaza bat ordutegi jakin batean jartzea bezeroen check-in eta check-out-a gertatzen direnean, Igeretxe hotelarekin egin zen bezala.



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Ander Elortegi Ostatu Mahaiko ordezkariak proposatu du Udaletik “GETXO” marka sustatzea udalerraren sarreran, ibilgailuen trafikoaren bidez: 3 dimentsioko grafia-errotulazio baten bidez, edo “Marbella motako” arku baten bidez, bisitariei udalerriko sarreraren berri emateko.

Getxoko taxilariekin harremanetan jartzeko eskatu dute, taxi-eskari handia dakarten ekitaldiak dituztenean egin beharreko jarduketak lantzeko.

Bileran parte hartu duten ostatuak hurrengo egunetan biltzea erabaki dute.

### **Hurrengo urratsak:**

- Enpresen Kontsulta Foroa urriaren 30ean biltzeko deitzea. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak



## OSTATU MAHAIAREN ERABAKIAK (2024-10-02):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Ekonomia Sustapenaren Arloa	Bileratik aurrera
2. Ibilgailuen trafikoa dela eta, hotelak seinaleztatzeko proiektuaren jarraipena eta komunikazioa egitea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Taxi en mahaira hotelekin zerbitzua kudeatzeko merkataritza-lankidetzarako proposamen bat helaraztea, bezeroen mesedegarri.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Kontrataziorako laguntzen deialdiari buruzko informazioa bidaltzea.	Ekonomia Sustapenaren Arloa	Argitaratzen denean
5. Pentsioen/apartamentuen bezeroentzako zamalanetarako aparkaleku-aukera baloratzea, edo egonaldi luzeetarako TAO tarifak ezartzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
6. Hiru dimentsioko nortasun korporatiboaren errotulua (GETXO) jartzea, ibilgailuz doazenek ikusteko.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera